# ¡RAKURRI, ETA ONDO PASA!




**MARTINBER ETA LAGUN** • Kultura

## Lan eta bizi, euskaraz

Gure altxorrik preziatuena da euskara. Ongi gorde, babestu eta zaindu beharreko altxorra. Gauden tokian gaudela erabiltzea da altxor hori zaintzeko eta gure artean luzaroan irauteko modurik eraginkorrena. Garrantzitsua da nonahi erabiltzea: etxean, eskolan, kalean, familian, lagun artean... Baita lanean ere.

Hala, lan munduan euskara normalizatzeko bide berria jarri du abian Banaiz Bagara elkarteak. BERRIA, Katxiporreta, Kontseilua eta Elkar argitaletxea izan ditu bidelagun elkarteak egitasmoan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso du.




BANAIZ BAGARA

Azoketan euskara praktikatzen dute ikasleek.

*Lana Euskaraz* izena du egitasmoak, eta euskararen erabilera sustatzea du helburu. Euskaraz ez dakiten lagunek lan munduan erabiltzeko euskara ikastea eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematea da proiektuaren helburu nagusia. Hala, azaroan zortzi lagun aritu dira euskara ikasten, eta, orain, euskara praktikatzeko eta erabiltzeko aukera izango dute, Gabonetan hainbat herritan euskarazko produktuak saltzeko jarriko dituzte postuetan. Postu horietan, besteak beste, Irrien Lagunak klubeko eta Katxiporreta pailazo taldearen produktuak salduko dituzte.

Gogoan izan, beraz, postu horietako batera joaten bazarete, egin euskaraz! Postuan dauden lagunek ere euskaraz bizi eta lan egin nahi baitute.

**DENBORA-PASAK**

## 1. Munduari bira

Futbolzale amorratua da Fermin. Partidak ikustera ere kamera eskuan joaten da beti. **Zein entrenatzaileri egin die argazkia?**



## 2. Aurkitu irudian

Eskolarako marrazki berezi bat egin behar duela eta, argazkiak pilatzen aritu da Lander. **Zein da errepikatzen den irudia?**





**Erantzunak**

**1.-** Unai Emery, Michel eta Manuel Pellegrini. **2.-** Turkiako bandera.